



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urtarrilaren 28a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hartz arrea ugaltzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, karramarro arrunta ugaltzeko planari eta karramarro aloktonoa antolatzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Erradiologiako Teknikarien Lanbide Elkargoa eratzeko eskaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren kotxe ofizialei eta horiek eragiten duten gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Liburutegi Zerbitzuak eskola liburutegien esparruan egiten duen lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, muxar grisaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, baso-igel jauzkariaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, azeriaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, katagorriaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Leitzako Amazabal BHIko teilatua konpontze aldera Nafarroako Gobernuak deitu dituen lau enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Lehiakortasuna Egiaztatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, hondakinak kudeatzeko sistema integratuen ezarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, 2007an sai zurien heriotza eragin zuen substantzia zehaztu ezin izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Tafallan erraustegia instalatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarriko Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Iruñeko González Tablas kaleko administrazio-erakin berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua orain dagoen lekutik Alondegi kaleko lehengo kokalekura eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, hartz arrea ugaltzeko planari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hartz arrea ugaltzeko planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hartz arrea ugaltzeko planari buruz (PES-545). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Hartz arrea ugaltzeko Planaren esparruan Nafarroan egiten ari diren lanei dagokienez, alor hauetakoak dira aipagarrienak:

A.- Habitata zaintzeko eta kudeatzeko jarduerak.

A1.- Hartzarekin bateragarria den lurraldearen kudeaketa orokorra (4. eta 5. neurriak):

– Planean jaso bezala, baso pistak egiten dira hartzaren egoera kontuan hartuta, ez kilometro kopuruak ez pista gehiegi egiteak ez dezan sor pisten xedeak direla-eta –planifikaturiko egur aprobetxamendua eta abeltzaintzako jarduerak– ezinbestekoak diren eragozpenak baino gehiagorik.

– Oihaneko jardueraren planifikazioan kontuan hartzen da bilakaera naturala duten baso-erreserbak izatea hartza gehien dauden tokietan, espezie horretako animaliak ahalik eta lasaien bizi daitezzen.

– Lurzati batzuetan hartzen elikadurarako egokiak diren fruituak ematen dituzten espezieak landatu dira.

A2.- Konpentsazioak eta kalteordainak (6. neurria):

– 2000. urtetik, eta urtean behin, dirulaguntzen kanpaina bat egiten da, hartzak egon litezkeen eskualdeetan abeltzaintzan egin behar izaten den ahalegina konpentsatzeko.

– Hartzek eragindako kalte guztiak ordaintzen dira, Berreskuratze Planean ezarritakoaren arabera.

A3.- Artzain-azpiegiturak erraztea hartzekin batera bizi ahal izateko: aterpeak eta arditxakurrak (7. neurria)

– Hiru eskorta egin dira larre altuko azalera zabala duten hiru guneeetan, abeltzaintza erraztu eta hartzarekiko elkarbizitza ziurtatze aldera.

A4.- Ehiza-jarduerak (8. neurria):

Eskualde horretako ehiza-barrutien antolaketa zinegetikoko planetan espresuki jaso da ezen, ehi-zaldi batean hartzaren presentzia detektatuko balitz, ehizaldia bertan behera geratuko dela eta beste toki batean egingen dela.

– Eskuorri bat argitaratu da –Cazadores y osos por una convivencia en el Pirineo–, jarrera egokiak sustatze aldera.

A5.- Turismo-jarduerak (9. neurria):

Eskuorri bat argitaratu da –Turistas y osos por una convivencia en el Pirineo–, jarduera horiek eta hartza arrearen kontserbazioa bateragarri egiteko. Eskuorri hori aurkezte aldera, bilera egin zen landetxeen jabeekin.

B.- Espeziearen jarraipenerako eta kontrolerako jarduerak

B1.- Ohiko jarraipena egiteko jarduerak eta datuen erregistroa

Espeziearen presentzia adierazten duen edozein zantzuren jarraipena egiten da, eta zantzu horren ezaugarri teknikoak erregistratzen dira.

Zantzu horiek horretarako prestaturiko fitxa digital estandarretan islatzen dira.

Argazkiak egiten dira horretarako harrapaketa-kamerak erabilia, animalia identifikatzeaz gain, haren osasun-egoera detektatzeko.

B2.- Koordinazio-bilerak egiten dira ondoko hauekin:

– Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurune-ko Ministerioko teknikariek, horretarako sorturiko lan-taldearen bitartez.

– Administrazio-entitate mugakideetako teknikariek, modu berariazkoagoan aztertze hartz arreararen mendebaldeko gunearen berezitasunak.

– Pirinioetako teknikariek.

Horretaz gain, Pirinioen bi aldeetako administrazioetako taldeek eginiko begiztatzeen inguruko informazioa bateratzen da.

C.- Ikerketa-jarduerak

– Hartz-laginak aztertzen dira, zehaztapen genetikoa egite aldera. Gainera, kasuko informazio laburpenak egiten dira, hartzak gehien atsegin dituen eskualdeak eta abar zehazte aldera.

– Beharrezkoak diren kontsultak egiten zaizkie adituei, detektaturiko arazoei aurre egiteko; adibidez, azken urteotan detektaturiko ile-erortzea.

D.- Zabalkuntzarako jarduerak

– Hartzaren egoerari buruzko eskuorriak argitaratu dira, espezie honekiko jarrera egokiak sustatze aldera.

– Ikastetxeetarako programa berariazko bat prestatu da. Bertan, material didaktikoa eta hainbat jarduerak jasotzen dira.

Bestalde, 1-3 neurrietako batzuk, baita espezie horri buruzko ekintza esparru orokorra ere, sartu dira Larra-Aztaparreta, Larrondo-Lakartxela eta Arrigorrieta Mendia/Ezkaurre Batasunaren intereseko lekuaren kudeaketa-planen garapenean. Plan horiek, heldu den ekainean jendaurreko prozesua amaitu ostean, behin betikoz onetsiko dira.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, karramarro arrunta ugaltzeko planari eta karramarro aloktonoa antolatzeke planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du karramarro arrunta ugaltzeko planari eta karramarro aloktonoa antolatzeke planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du karramarro autoktonoa ugaltzeko eta karramarro aloktonoa antolatzeke planei buruz (PES-546). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

A) Karramarro Autoktonoa Ugaltzeko Planak ahalbidetu du 21 populazio berreskuratzea –populazio guztien % 25 gutxi gorabehera–, eta 20 populazio gehiago berreskuratzeke lanean ari gara.

B) Karramarro Aloktonoa antolatzeke Plana aplikazioan dago –arrantza librea den zatietan foru agindu bidez arautzen da urtero–, baita Karramarro Autoktonoa Ugaltzeko Planean jasotako neurrietatik karramarro mota horri dagozkionak ere (arrantza-barrutietan arrantzatzea, autoktonoaren banaketa esparruaren barruan).

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarri-rako Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarri-rako Programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarri-rako Programari buruz (PES-547). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, landa eremuetako planak prestaketa-fasean daude, zehaztutako lehentasunezko lau landa eremuetako bakoitzerako bana: Pirinioak, Atlantikoko mendiak, Estellerriko mendialdea eta Nafarroaren Eki-erdialdeko mendiak. NASURSA enpresa publikoa da horiek prestatzeko ardura duena, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Landa Garapeneko zuzendari nagusiak koordinatuta.

Lehentasunezko lau landa eremuetako planen zirriborro bat egin da, kontuan hartuta Nafarroako Gobernu zuzendaritza nagusien, tokiko ekintza-taldeen, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federa-

zioaren eta toki entitateen ekarpenak, eta jendarean egon da 2010eko maiatzaren 23tik ekainaren 23ra arte.

Ondoren, partaidetza organo bat sortuko da, Administrazioiko ordezkariak eta, batez ere, ukitutako lurraldeek izendatutako ordezkariak osatua. Hala, lurralde horiek jardueren lehentasuna finkatzen parte hartuko dute, eta horrek ahalbidetuko du eskatutako aurrekontuak egokitzea dagoen diru kopurura eta jarduera ildo bakoitzeko gutxieneko zenbatekoetara.

Landa eremuetako planak behin betikoz idatzi ondoren, horiek Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez onetsi beharko dira, aldezturik Estatuari kontsulta egin eta gero, eta, horrela, Gobernuak Estatuarekin hitzarmena egiteko izapideak hasiko ditu, planak betetze aldera.

Nafarroako Landa Garapen Iraungarri-rako Programaren izapidetze-egoerari buruzko informazio osoa eta gaurkotua eta parte-hartze prozesuan dauden zirriborroak sarean daude eskuragarri, ondoko webgunean:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Desarrollo+Rural+y+Medio+Ambiente/

http://www.nasursa.es/es/ObservatorioTerritorialNavarra/Proyectos_Desarrollo_Territorial.asp

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako Erradiologiako Teknikarien Lanbide Elkargoa eratzeko eskaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Erradiologiako Teknikarien Lanbide Elkargoa eratzeko eskaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Erradiologiako Teknikarien Lanbide Elkargoa eratzeko eskaerari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

2010eko ekainaren 21eko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak deliberatu du ez baliatzea

beharrezkoa den ekimen legegilea Nafarroako Diagnostikarako Irudiko Goi Mailako Teknikarien Elkargo Ofiziala foru lege bidez eratzeko, "Anter" Nafarroako Erradiologiako Teknikarien Elkarteak eskatu zuena. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu da Osasun Departamentuak eta Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentuak eginiko txostenen iritzirik negatiboa. Txosten horietan esaten denez, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraikiz, ez da betetzen baldintza bat, hots, osasun arloko lanbidea, tituluduna eta arautua izatea, eta, gainera, ez dago interes publikoko arrazoi garrantzitsurik aurreko egoera aldatu eta elkargo hori eratzeko justifikatzen duenik.

Nafarroako Gobernuaren erabakiaren berri eman zaio eskaera egin zuen elkarteari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 23an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren kotxe ofizialei eta horiek eragiten duten gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren kotxe ofizialei eta horiek eragiten duten gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera

egin du ibilgailu ofizialen datuei buruz (PES-550). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen parkeak 22 "auto ofizial" ditu; horietatik 17, ondoko agintarien etengabeko zerbitzurako erabiltzen dira: Nafarroako Gobernuko lehendakaria, Nafarroako Gobernuko 10 kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Nafarroako fiskal gorena, Arartekoa eta Comptos Ganberako lehendakaria.

Gainerako ibilgailuak –guztira 22 baitira– ordezkapenak egiteko erabiltzen dira, mantentze-lanak edo segurtasun arazoak tarteko, eta bestelako zerbitzu ez-iraunkorretarako, hala nola Nafarroako Gobernuko beste gogor batzuk edo

bisitari instituzionalak noiz edo behin eramateko, protokoloaren arabera beharrezkoa denean zerbitzu hori ematea.

22 auto ofizialek eragindako gastuak –2010erako zenbatekoak agertzen dira– egozten zaizkie Nafarroako aurrekontu orokorretan xede horretarako aurreikusitako “Ibilgailuen parkea” izeneko programari dagozkion kontusailei, zeinak parentesi artean agertzen baitira:

Ibilgailuen aseguruak: 7.920 euro
(050003/02930/2249/921800
Aseguru primak, bestelako arriskuak)

Konponketak: 116.600 euro
(050003/02930/2140/921800
Ibilgailuen eta makineriaren konponketak eta mantentze-lanak)

Ibilgailuak mantentzeko laguntza teknikoa: 2.060
(050003/02930/2279/921800
Ibilgailuak mantentzeko laguntza teknikoa)

Erregaiak: 75.000 euro
(050003/02930/2281/921800
Erregaiak, labaingarriak eta berokuntza)

Berritzeak: 60.000 euro
(050003/02930/6040/921800
Pertsonak garraiatzeko ibilgailuak)

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 22an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Liburutegi Zerbitzuak eskola liburutegien esparruan egiten duen lanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Liburutegi Zerbitzuak eskola liburutegien esparruan egiten duen lanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zein jarduera-ildo ari diren garatzen, Nafarroako ikastetxe guztietako eskola-liburutegiei dagokienez, Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegien Zerbitzua eta Hezkuntza Departamentua (PES-549). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Liburutegien Zerbitzua harremanetan da Hezkuntza Departamentuko arduradunekin; zehazki, Prestakuntza eta Hezkuntza Berrikuntzako Zerbitzuarekin, haren menpe baitaude irakasleei lagun-

tzeko zentroak eta Hezkuntzaren Berriztapen Atala, zeinari atxikita baitaude eskola liburutegiak, liburutegi publikoaren eta eskola liburutegien elkarlana bultzatzeko eta baliabideak partekatze-ko, halako moduz non elkarren osagarri izan diren eta elkarri laguntza emanen dioten ikasleei eskola curriculumak garatzeko behar dituzten informazio-baliabideak eta irakurgaiak emateko eta gure erkidegoko haur eta gazteen artean irakurzaletasuna zabaltzeko.

Garatzen ari diren jarduera ildoak hauexek dira:

- Protokolo bat prestatzea, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren lankidetz esparruak finkatu, zehaztu eta arautuko dituen; izan ere, administrazio-araudiaren arabera, departamentuek ezin dute haien artean hitzarmenik sinatu, Liburutegiei buruzko Legean ezarrita dagoen moduan.

- Elkarrekin aktiboki lan egitea irakurzaletasunaren sustapenarekin zerikusia duten kanpainak zabaltzen eta jarduerak, argitalpenak eta bestelako sustapen-materialak eta abar diseinatzen, Hezkuntza Departamentuak edo Liburutegien Zerbitzuak antolatu, sustatu edo argitaratuak badira.

- Liburutegi publikoen harreman instituzionalak sustatzea eta erraztea zerbitzu ematen duten eskualdeko ikastetxeekin. Zehazki, ikasleen bisitak antolatzea eta funtsen mailegu kolektiboak egitea.

- 2010-2014 urteetarako Liburutegien Zerbitzuari buruzko Plan Estrategikoa prestatze aldera, Hezkuntza Departamentuarekiko koordinazioa eta lankidetzaren mantendu dira, biek batera irakurzaletara

suna sustatzeko eta maila guztietako hezkuntza formalari laguntzeko ekintzak prestatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du enpresa publikoetako langileek Administrazioako departamentuetan egindako lanaren datuei buruz (PES-559). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Lantokia kasuko enpresaren lokaletan badute ere, enpresa publiko edo erakunde publikoetako 12 langilek (Tracasa, NGA eta PIN) Modernizazio eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusian egiten dute beren lanaren zati bat, bete-behar duten lan zehatzaren izaeraren arabera.

Horretarako, langile horiek altzari estandarrak izan ditzakete aipatu zuzendaritza nagusiko egoitza

(mahaiak, aulkiak, telefonoak eta armairuak), baina ez dute bestelako ekipamendu osagarriarik.

Pertsona horiek –sistema informatikoetako teknikariak edo antzekoak, goi mailakoak eta maila ertainekoak– ez dituzte herritarrak artatzen; izan ere, egoitza horietara joaten direnean, barneko eginkizunak betetzen dituzte, betiere informazioaren eta komunikazioen teknologiei buruzkoak. Administrazioak enpresa publikoei eskatutako lan zehatzak egiten dituzte, horiek egiteko praktikoa-goa eta eraginkorragoa bada Administrazioaren egoitzetan bertan egitea; izan ere, gertutasun fisikoak kostuak eta denbora aurrezteari ahalbidetzen du, halako lanek eskatzen baitute harreman estua izatea Administrazioako kudeatzaileekin eta eskatutako lanen xede diren sistema eta ekipamenduekin.

Bestalde, eta nolabaiteko antzekotasunarekin, nahiz eta kasu honetan lantokia Nasersaren bulegoetan izan, enpresa publiko horrek kontrataturiko zenbait kazetarik ematen diete hedabideei larrialdietako zerbitzuen jardunari buruzko informazioa, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren eskariz. Horretarako, eta agerikoak diren arrazoiak tarteko, ematen den zerbitzu mota dela-eta, langile horiek Nafarroako Larrialdietako Agentziaren egoitzara joaten dira, eta han egoten dira haiek lanaldiaren zati batean.

Langile horiek ordenagailu bat dute esleituta, eta horren bidez lor dezakete hedabideak artatzeko erabiliko duten informazioaren zati bat. Hala-ber, Agentziako telefono finkoa ere erabiltzen dute, hedabideek informazio eske deitzen dutenean.

Enkarguan aritzen diren kazetariak –hiru dira, guztira– Nafarroako Gobernuako Prentsa Kabinetean kazetari funtzionarioak ez dagoen ordutegia betetzen dute; hau da, asteburuak eta jai-egunak. Agerikoa denez, ez dute jendea artatzen, hedabideak baizik, Prentsa Kabinetean jardueraren zati bat aurrea eramaten baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, muxar grisaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du muxar grisaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako muxar grisaren gaur egungo egoerari eta Nafarroak hori babesteko harturiko neurriei buruz. Horri buruz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten du une honetan ontzat jotzen dela muxar grisak Nafarroan bizi duen egoera. Foru Komunitatearen iparraldeko erdian dago hedatua, eta, bere iberiar banaketa-eremuaren gainontzekoan bezala, bere presentziak lotura sendoa dauka hosto galkorreko basoekin; bereziki, pagadi eta hariztiekin. Gaur egun ez dago eskueran muxar grisak Nafarroan duen populazioari buruzko estimaziorik. Nahiz eta interesgarria izan litzatekeen informazio hori edukitzea, ez da ahaztu behar hori lortzeak giza

baliabide eta baliabide ekonomiko ugari inbertitzera behartuko lukeela, eta orain arte erabaki izan da eskueran dauden baliabideak bideratzea mehatxatuagoak dauden beste espezie batzuetara.

Kontserbaziorako harturiko neurriei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Oihan Antolamenduko Plan guztietan aplikatzekoak diren jarraibide batzuk ezarri ditu. Horien artean, honakoak dira aipagarri:

- Interes ekologikokoak diren zuhaitzen kontserbazioa, horiek bizirik, zaharturik edo hilik egon.

- Hektarea bakoitzeko gutxienez ere 8-10 oin heldu kontserbatzea pagadien azken mozketan, ziklo biologikoa mendian buka dezaten. Jarraibide horiek aplikatzeak bultzada sendoa emanen dio espezie honen kontserbazioari, menpekotasun handia baitauka zuhaitz zahar eta hilekiko, zeren eta haien barreneko hutsuneak eskuragarri dagoen babesleku bakarra baitira.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, baso-igel jauzkariaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du baso-igel jauzkariaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du baso-igel jauzkariaren egoerari buruz (PES-552). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna: baso-igel jauzkariaren egoera egonkorra da, populazioaren aldetik kopurua txikia bada ere. Batez ere Ultzama aldeko urmaeletan, Iruñerriko idoi batzuetan, Sakanako zenbait urmaeletan eta Cabredoko (Arabako muga) urmael batean aurki daiteke.

Haren sakabanatze-area globala ez da handitu, nahiz eta aurki daitekeen zenbait eremutan horretarako propio egindako urmael batzuen kolonizazioa gertatu, eta horrek populazioaren egonkortasun orokorra ahalbidetzen du. Urteko gorabeherak gorabehera, mailari eutsi dio denboran zehar.

2008an eta 2009an zenbait esperientzia egin izan dira berariazko instalazioen bidez ugaltze-prozesuari laguntzeko, hastapeneko larba-aldieta-ko biziraupena ziurtatzeko. 2009an zehar zenbait idoi sortu dira Ultzaman helburu horrekin.

Beste ikerketa mota batzuei dagokienez, aipatutako azpipopulazioen genetika aztertu da, eta horien arteko aniztasun genetikoa nabarmena dela ezarri da; horrek adierazten du lerro genetikoko horietako bakoitza kontserbatu beharra, espeziea oro har pobretzea ekidite aldera.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, azeriaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du azeriaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du azeriaren egoerari eta Gobernuak hura babesteko hartutako neurriei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Azeri arrunta (*Vulpes vulpes*) ehiza-espezie bat da eta, horregatik, ez zaio inongo babes-neurririk aplikatzen.

Azeriak Nafarroan duen egoera orain dela 20 urte baino gehiagotik monitorizatzen da, gauzez egiten diren behaketen bidez. Gauzez ibilgailuetatik eginiko behaketak dira horretarako tresna egokiena, erraza delako behaketa horiek egitea eta behin eta berriz egin daitezkeelako. Urtero egiten dituzte, alde batetik, ehiza-barrutiek, ehiza antolatzekeo planetan ezarritako ibilbideetan, eta, bestetik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko basozainek.


Behaketa horien emaitzek adierazten dute kilometroko ugaritasun-indizea altua dela. Hori dela eta, ondoriozta daiteke azeri ugari daudela, txosten honekin batera doan eranskinean azaltzen den moduan.


Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Eranskina Azeriaren kilometroko ugaritasun-indizearen bilakaera Nafarroan





Galdera, katagorriaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du katagorriaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du katagorriak Nafarroan gaur egun bizi duen egoerari eta Gobernuak hori babesteko harturiko neurriei buruz. Horri buruz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten du une honetan ontzat jotzen dela katagorriak Nafarroan bizi duen egoera. Katagorria foru erkidegoko ipa-

rraldean eta erdialdean bizi da, eta hostozabalen eta koniferoen baso gehienetan agertzen da. Hura babesteko hartutako neurriei dagokienez, Nafarroako Gobernuak eginiko Nafarroako baso eta naturguneen kudeaketak espezie horren iraupenari laguntzen dio, baso-azalera handitu eta basoaren egoera ekologikoa hobetzen baita (esaterako, zuhaitz zaharren kopurua handituta). Gaur egun ez dago eskueran katagorriak Nafarroan duen populazioari buruzko estimaziorik. Nahiz eta interesgarria izanen litzatekeen informazio hori edukitzea, ez da ahaztu behar hori lortzeak giza baliabide eta baliabide ekonomiko ugari inbertitzera behartuko lukeela, eta orain arte erabaki izan da eskueran dauden baliabideak bideratzea mehatxatutakoak dauden beste espezie batzuetara.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Leitzako Amazabal BHIko teilatua konpontze aldera Nafarroako Gobernuak deitu dituen lau enpresei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Amazabal BHIko teilatua konpontze aldera Nafarroako Gobernuak deitu dituen lau enpresei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Leitzako Amazabal BHIaren jantokiko teilatua egoera txarrean dagoenez, eta kontuan hartuta teilatua hori zuntz-zementuzko plakaz osatuta dagoela, erabat debekatuta dago bertan inolako konponketarik egitea, eta ezinbestekoa da teilatua aldatzea.

Teilatua kentzeko enpresa espezializatu bat behar da, Nafarroako Gobernuak Industria Departamentuaren baimena duena, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak eraikin horren teilatua aldatzeko kontratazio-pro-

zedura jarri du abian, Europar Batasunean publikizatzerik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, Kontratu Publikoari buruzko 6/2009 Foru Legeak ezarritakoaren arabera, 112.000 euroko gehienezko kopuruagatik (% 18ko BEZa barne).

Hona hemen prozedura horretan parte hartzeko gonbidatu diren lau enpresak:

1. Alfonso Joaquín Oyarzabal de Anta. Patxi Arrazola, 12 3-B 31880 Leitza. (IFZa: 34.097.820-K)

2. Construcciones Díaz y Cerdán S.L. Santacara, 2 behea. 31390 Erriberri (IFZa: B31416282)

3. Geser Navarra S.L. Landabengo industrialdea, B kaleko patioa 31012 Iruña (IFZa: B31-419856)

4. Cubiertas Larra, S.L. Comarca II C/A industrialdea, 26. nabea 31191 Galar (IFZa: B 31561962)

Eskaintzak aurkezteko epea 2010eko maiatzaren 14an amaitu zen.

Oinarritzko aginduen orrian ezarritako esleipen-irizpidea da eskaintza merkeenarena. Ondoko taulan agertzen dira jasotako eskaintzak. Esan behar da lau enpresak onartu direla prozeduran, aginduen orrian ezarritako baldintzak betetzen baitituzte:

Lizitatuak	Dokumentazioa	Proposamen ekonomikoa	Puntuazioa
Construcciones Díaz Cerdán S.L.	Zuzena	99.680,00 €	92,76
Geser Navarra S.L.	Zuzena	106.112,54 €	87,14
Cubiertas Larra S.L.	Zuzena	92.467,00 €	100,00
Alfonso Joaquín Oyarza de Anta	Zuzena	109.862,07 €	84,17

Esleipenerako proposaturiko enpresa Cubiertas Larra, S.L. da, zeinak egoitza Galarren baitu.

Honekin batera doaz oinarritzko baldintzen orrien eranskinak, enpresei lehiaketan parte hartzeko bidali zitzaizkien gonbidapenak, jasotako proposamen ekonomikoa eta esleipenari buruzko txostena.

Iruñean, 2010eko ekainaren 9an

Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia: Javier Esparaza Sánchez

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu Kudeaketan).

Galdera, Hezkuntza Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Hona Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Amanda Acedo Suberbiola andreak egin duen idatzizko galderaren erantzuna (7-10/PES-00561):

2010ean zehar langile bakar bat egon da, galderako egoeran zegoena eta departamentu honetan ondoko baldintzetan egon dena:

1. 2010eko otsailetik maiatzera bitarte, Hezkuntza Departamentuan Extr@ kudeatzaile korporatiboa ezartzen ibili gara, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntza eta diru-laguntza espedienteak izapidetzen dituen.

2. Hezkuntza Departamentuaren erabiltzaileentzako prestakuntza orokorreko eta tutoretzapeko probetako prozesua departamentuaren instalazioetan egin dute Trabajos Catastrales, S.A. sozietate publikoko teknikariek, Antolamenduaren,

Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 615/2009 Ebazpenean zehazten den bezala, zeinaren bidez gastua onesten eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Modernizazio eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eskura jartzea baimentzen baita.

3. Horren ondorioz, sozietate publiko horretako informatika-euskarriko teknikari batek (informatika-ingeniaria) euskarri tekniko presentziala eman du Hezkuntza Departamentuan bitarte horretan, beharrezkoak ziren departamentuaren baliabide material eta teknikoak erabilia: lanpostu fisikoa Idazkaritza Nagusi Teknikoan, telefono-linearekin, ordenagailu eramangarriarekin eta bideo-proiektagailuarekin, prestakuntza saioetarako.

4. Hezkuntza Departamentuan lanean egon den denbora horretan, Idazkaritza Nagusi Teknikoko Aldaketa Koordinatu eta Kudeatzeko Atalak gidatu eta gainbegiratu du pertsona horren lana, harekiko nahiz departamentuarekiko inolako menpekotasun organikorik egon gabe.

5. Une honetan, 2010eko ekainaren erdialdean, pertsona horrek ez du jada ematen euskarri presentzialik Hezkuntza Departamentuan, baina aurreikusita dago irailetik azarora bitarte berriz ematea, lanaldi murriztuagoarekin bada ere, hartara osatuko baitu Extr@ kudeatzaile korporatiboa laguntzak eta diru-laguntzak izapidetzeko konponbidearen ezarpen-lanetarako ezarritako ordu kopurua.

Iruñean, 2010eko ekainean

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz (PES-563). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1 - 107.

2 - Haien enpresek jartzen dituzte beharrezkoak diren material guztiak departamentuak enpresa publikoari agindutako lana bete dadin. Agindutako lanak zuzen betetzeko beharrezkoa balitz, departamentuak enpresa publikoko langileen eskura jartzen ditu beharrezkoak diren baliabide materialak.

3 - Herritarrak artatzen dituzte betiere beharrezkoa bada agindutako lana modu egokian egiteko; izan ere, beti bilatzen da herritarrei zerbitzuak ahalik eta hobekien ematea. Laguntza administratiboa edo teknikoa izan daiteke. Menpekotasun funtzionala eta organikoa lana agindu zaion enpresaren antolamenduari dagokio; departamentuan ez dago halako menpekotasunik.

4 – Ezin da esan ezaugarri horiek dituzten lanpostuak daudela, pertsonak eta haien lan-prestakuntza aldatu egiten baitira departamentuaren beharren arabera; hau da, sozietate publikoari agintzen zaion lanaren edo proiektuaren arabera.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz. Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.

Gaur egun, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan fisikoki daude Ceinsako bi langile, Tracasako beste bi, eta Opnateleko langile bat.

2. galdera.

Pertsona horiek Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren baliabide materialak erabiltzen dituzte (mahaia eta ordenagailua).

3. galdera.

3.1. Ceinsako bi langileek beren jarduera gauzatzeko departamentuak sozietate horri agindutako lanaren esparruan; hain zuzen, departamentuaren eskumenekoak diren zenbait dirulaguntzaren kudeaketa egiteko. Departamentuko bulegoetan noizik eta behin egoten dira, dirulaguntza horiek kudeatzeak sortzen dituen beharrezan araberak, eta han zehazki egiten dutena da une jakinetan –deialdiak argitaratzen direnean edo horiek ebazterakoan– izaten diren kontsultei erantzutea, bai eta kudeaketa tekniko eta adminis-

tratioko zenbait lan egitea ere, haien ezaugarriak direla-eta egokiagotzat jotzen bada departamentuko bulegoetan egitea.

Ceinsari eginiko enkarguan aurreikusten zen enpresa horretako pertsona bat egonen zela enkarguaren xede ziren lanen arduradun, eta pertsona hori da Ceinsako langile guztiei jarraibideak emateko eta lana antolatzeke eginkizuna duena. Halaber, esan behar da langile horiek Ceinsako langileen ordutegia dutela. Menpekotasun organiko eta funtzionalari dagokionez, Ceinsak enkarguaren arduradun izendaturiko pertsonaren menpe daude.

Noizik eta behin, enkarguaren baldintza-ordian jasota bezala, koordinazio-bilerak egiten dira Ceinsako enkarguaren arduradunaren eta departamentuko administrazio-unitateen arduradunen artean, lanak egiteko jarraitu beharreko ildoak ezartze aldera.

3.2. Tracasako bi langileak espedienteen “Extr@” kudeatzaile korporatiboa ezartzeko lanetan ari dira, bata departamentuan bertan eta beste Nafarroako Enplegu Zerbitzuan. Tracasa ari da aplikazio hori garatzen.

Tracasak lana egiteko jarraibide teknikoak ematen dizkie pertsona horiei eta lan-ordutegia betetzen dutela kontrolatzen du.

3.3. Opnateleko langileak laguntza ematen dio departamentuari LTDa zabaltzeko lanetan. Opnatelek kontrolatzen du lana eta lan-ordutegia betetzen direla.

4. galdera.

Guztira, enpresa publikoetako bost langile daude gaur egun departamentuan fisikoki kokatuta. Dirulaguntzak kudeatzen dituzten biek eta LTDa zabaltzen laguntzen duenak erdi mailako teknikari kualifikazioa dute. Espediente-kudeatzaileak ezartzen laguntzen ari direnek informatikako teknikari kualifikazioa dute.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluaren egungo egoerari buruz (PES-570/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu-kontseilariaren erantzuna:

Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren maiatzaren 21eko 239/2009 Foru Agindua-ren bidez –2009ko ekainaren 29an argitaratu zen NAO– sortu zen Nafarroako Langile Autonomoen Lanbide Elkarteen Erregistroa.

Aurtengo ekainera arte ez da Nafarroako langile autonomoen lanbide elkarerik inskribatu bertan. Gaur egun, elkarte bakarra dago inskribatuta aipatu erregistroan, eta beste batek eskaera aurkeztu du eta hura izapidetzen ari da.

Nafarroako elkarte batzuekin harremanetan jarri gara, Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluaren osaketan parte har dezaten, baina lehenik eta behin elkarte horiek erregistroan inskribatu behar-ko lukete.

Elkarte horiek inskribatu ondoren, kontseiluaren diseinua prestatzen hasiko gara, kontuan hartuta gure erkidegoko sektore autonomoaren elkar-te-mapa.

Aldi berean, sektore horretako jarduera errazte aldera, banner edo iragarki bat jarriko da interneten, zeinak elkarte guztiei ahalbidetuko baitie Nafarroako Langile Autonomoen Lanbide Elkarteen Erregistroaren webgunera sartzea Interneteko atariko webgune gehienetatik. Hona hemen webgunea: www.portalautonomos.com.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Lehiakortasuna Egiatzatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Lehiakortasuna Egiatzatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Lan Lehiakortasuna Egiatzatzeko Nafarroako Agentziaren egungo egoerari buruz (PES-574/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8.4 artikulua ahalmena ematen dio Gobernuari, alde aurretik Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsulta eginda, konpetentziak ebaluatzeko eta egiatzatzeko baldintzak eta prozedurak finkatzeko, bai eta horien ondorioak ere. Horrela, Lan esperientziaren bidez lortutako lanbide gaitasunak aitortzeari buruzko uztailaren 17ko

1224/2009 Errege Dekretuan gaitasunak definitu eta Estatuko lurralde osorako balio dutela adierazten da. Errege Dekretuaren hirugarren artikuluan aipatzen denez, prozeduraren helburua ez da soilik ebaluatzea zer gaitasun profesional eskuratu dituzten pertsonen lan-esperientziaren bidez eta prestakuntzako beste bide ez-formal batzuen bitartez, baizik eta gaitasun profesionalon egiaztapen ofiziala ematea, halako moduz non horien balioa nabarmenduko baita, helburu hartuta bai laneratzeari eta lan merkatuan libreki zirkulatzea, bai aurrerabide pertsonala eta profesionala. Eta helburua da, halaber, erraztea pertsonen bizitzan zehar ikasteko modua izatea eta beren kualifikazio profesionala areagotzea.

Idazte fasean dira, errege dekretu hori oinarri hartuta, lan-esperientziaren bidez eta prestakun-

tzako beste bide ez-formal batzuen bitartez eskuratu gaitasun profesionala ebaluatzeke eta egiaztatzeke Nafarroako Foru Komunitatean ezarriko diren prozedura, antolamendu-egitura eta baldintzak.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, profesionaltasun-egiaztapenak lortzeko prestakuntza eskaintzak bultzatzen ari dira, eta lehentasuna ematen ari zaie Kualifikazioen Katalogo Nazionalan dauden haiei. Prestakuntza hori egiaztatzeke, egiaztapen ofizialak ematen ari dira, zeinak enplegua kudeatzeko mekanismoen parte izatera pasatzen baitira.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, hondakinak kudeatzeko sistema integratuen ezarpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hondakinak kudeatzeko sistema integratuen ezarpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hondakinak kudeatzeko sistema integratuen ezarpenari buruz (PES-576). Hona hemen Landa Garapeneke eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Hondakinak kudeatzeko sistema integratua	Eremua	Baimena lortu zuen urtea
SIG AUS	olio erabiliak	2007
ECOEMBES	ontziak	2007
ECOVIRIO	beirazko ontziak	2008
SIGFITO	fitosanitarioen ontziak	2008
SIGRE	sendagaien ontziak	2008
SIGNUS ECOVALOR	pneumatiko erabiliak	2008
TNU	pneumatiko erabiliak	2008
ECOPIAS	pila eta bateria erabiliak	2009
AMBILAMP	lanpara fluoreszenteak eta deskarga-lanparak	2006
ECOASIMELEC	tresna elektrikoak eta elektronikoak	2006
ECOFIMATICA	ekipo ofimatikoak	2006
ECOLEC	tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak	2010
ECOLUM	luminariak, lanparak eta horiekin zerikusia duten ekipoak	2006
ECORAE	tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak	2006
SIG	eremua	Baimena lortu zuen urtea
ECOTIC	tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak	2006
ERP	tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak	2009
TRAGAMOVIL	tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak	2006
Hondakinak kudeatzeko sistema integratua. Ekoizle independenteak.	olio industrialak	2010

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2007an sai zurien heriotza eragin zuen substantzia zehaztu ezin izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2007an sai zurien heriotza eragin zuen substantzia zehaztu ezin izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2007an sai zurien heriotza eragin zuen substantzia zehaztu ezin izateari buruz (PES-578). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2007an hiru sai zuri aurkitu ziren hilik Errege Bardean; pozoituak, itxura batean. Hirurak bidali ziren Basa Bizitzaren Auzitegi Laborategira, zeina

Mauro Hernández doktoreak zuzentzen baitu; doktore hori da Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioko Pozoiaren Kontrako Estrategiaren azterketa toxikologikoen arduraduna. Animaliak eskeleto huts bihurtuta zeuden, eta, beraz, aztertzeke gelditzen zen materiala urri-urria zen.

Azterketa bat eztabaiaezina izan dadin, animalian aurkitu behar den gai kutsagarriaren kopuruak (karbofuranoak, bromadiolona edo erabiltzen diren beste edozein pozon dela ere) heriotza eragiteko adina izan behar du; hau da, ez da nahikoa gai jakin bat agertzea, izaki bizidun guztiok baititugu hein batean horrelako gaiak, masiboki erabiltzen baitira pestizidak, intsektizidak, errodentizidak, etab. Kasu honetan, lagina egoera txarrean zegoenez, ez zen zehazterik izan substantzia jakin bat izan ote zen heriotzak eragin zituena.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Tafallan erraustegia instalatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallan erraustegia instalatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du erraustegia Tafallan ezartzeari

buruz (PES-579). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren proiektuak ez du inongo kokagune zehatzik jasotzen balorizazio energetikodun erraustegirik ezartzeko. Hori horrela, ez da inongo kontakturik izan Tafallako Udalarekin, eta, proiektu zehatza duen proposamenik ez dagoenez, ez da inongo izapiderik jarri abian. Ez dugu proiekturik igortzen, ez baitago inongo erraustegi-proiekturik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Klimaren aldeko Ekintza Planaren

egoerari buruz (PES-581). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Uneotan, planaren zirriborroa prestatuta dago, eta gelditzen dena da Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunek ontzat jotzea edo aldatzea, eta Gobernuak berak onestea.

Parlamentuko Klima Aldaketa Aztertzekeo Lantaldeko neurri asko eta asko sartuta daude aipaturako zirriborroan, eta beste batzuk sartuko diren azterbidean da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de

Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruz (PES-583). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ez da inongo eskumen transferentziarik gertatu; besteak beste, Nafarroako Gobernuaren berezko eskumenak ezin zaizkielako transferitu Administrazioaren parte ez diren ente edo entitateei, ezta sozietate publikoei ere, Nasursari esate baterako.

Nafarroako Gobernuak 2009ko ekainaren 29an hartutako erabaki baten bidez, 45/2007 Legearen gaineko departamentuen arteko koordinazio-eginkizunak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Landa Garapeneko zuzendari nagusiari esleitu zitzaizkion. Eginkizun eta eskumen horiek egoki erabiltzeko, erabaki zen Nasursari laguntza eskatzea, zeina, Nafarroako Gobernuaren gainerako sozietate publikoak bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura dagoen ente instrumentala baita. Hain zuzen ere, Nasursaren laguntza erabiltzen da ere-

muko planak prestatzeko eta departamentuari laguntzeko zirriborro horien gaineko parte-hartze publikoko prozesuan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

Galdera, Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako zirkuituaren inaugurazioak

eragindako gastuei buruz (PES-588). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak (2010eko ekainaren 19an) eragindako gastuek 95.000 euro egiten dute guztira, orain arte egindako zenbaketaren arabera, Nafarroako Parlamentuaren ekainaren 24ko Osoko Bilkuran egindako gaurkotasuneko galderari erantzunez adierazi nuen moduan.

Gastu hori ez zaio egotziko Nafarroako 2010eko Aurrekontu Orokorretako kontusail bati, jasota zegoelako Sociedad Circuito de Los Arcos, S.L. ren 2010erako komunikazio eta marketin aurrekontuan.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Aitor Etxarri Pellejero jaunak Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzko galdera egin du (PES-592). Honekin batera doa Sociedad Circuito de Los Arcos, S.L.k bidalitako informazioa.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Aitor Etxarri Pellejero foru parlamentariak Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruz eskatutako informazioa (PES-592).

1. Zergatik altxatu da Los Arcosko Nafarroako Zirkuituaren aparkalekuko zoladura?

Ustez, Atalaya Center izeneko eraikinaren inguruan dagoen Nafarroako Zirkuituaren aparkaleku asfaltatuari buruz ari zara, eta horri buruz adierazi behar dizut orain arte ez dela inolako hutsik gertatu bertan.

2. Zein izan da konponketa horren kostua?

Arestiko erantzunean adierazi dizudan bezala, ez da inolako hutsik gertatu aparkaleku asfaltatuan, eta, hortaz, ez da inolako konponketa-kosturik izan.

3. Zein egoeratan dago gaur egun zirkuituaren zoladura?

Ustez, galdera 3,9 kilometroko abiadura-zirkuituko pista nagusiari buruzkoa da. Bada, egungo egoera ezin hobea da proiektatutako jarduerak egiteko.

4. Zirkuituko zoladura aparkalekukoak dituen arazo berak izaten ari al da?

Ez dago arazorik ez aparkalekuan ez zirkuituko pista nagusian ere.

Circuito Los Arcos S.L.ko kontseilari delegatua: Pablo Romera Alonso

Galdera, Iruñeko González Tablas kaleko administrazio-erakin berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Iruñeko González Tablas kaleko administrazio-erakin berriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du zenbait zerbitzu González Tablas kaleko administrazio-erakin berrira eramateari buruz (PES-556). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Zerikusia duten departamentuek emaniko informazioarekin bat, hona eginiko galderen erantzuna:

1.- Lehen erabilerako lizentziaren eta irekitzeko lizentziaen izapideak amaitzeaz dira. Lizentzia horiek eskuratzeko Udalarekin izandako lehenbiziko kontaktua apirilaren 19an izan zen. Lehenbiziko bilera hartatik aurrera, non Udaleko arduradunek lankidetzarako borondaterik onena erakutsi baitzuten, udal teknikariek honako ikuskaketa-bisita hauek egin dituzte: apirilaren 22an (suteen prebentziorako teknikaria) eta apirilaren 29an (suteen prebentziorako teknikaria).

Maiatzaren 21ean, eraikina erabiltzen hasi baino lehen, Udalari ofizialki helarazi zitzaion zuzendaritza fakultatiboak sinatutako ziurtagiria, non jasota baitago obraren eta instalazioen exekuzioa bat datozela proiektuarekin, eta eginak zirela horiek egoki funtzionatzen zutela ziurtatzeko probak.

Geroztik, behin eraikina erabiltzen hasita, ikuskaketa-bisitak izan dira ekainaren 2an (suteen prebentziorako teknikaria) eta ekainaren 15ean (lizentziaren koordinatzailea).

Denbora horretan, Udalak bi errekerimendu informal igorri zituen posta elektronikoz, bata ekai-

naren 7an eta bestea ekainaren 11n, zeinak bide beretik erantzun baitziren ekainaren 7an bertan, hilaren 15ean eta hilaren 16an. Acedo parlamentari andreak galdera honi erantzuteko informazioa prestatzen ari garen honetan, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzua prestatzen ari da hirugarren errekerimenduari eman beharreko erantzuna. Errekerimendu hori oraindik iritsi ez bada ere –Udalak sarri igorriko digu modu ofizialean– aurreratu digute zer eduki izanen duen, eta, hala, erantzunean, berrikusi diren alderdi guztiak jasotzen dira.

Esan daiteke, beraz, ez dagoela jada kontu garrantzitsurik irekitzeko lizentzia arriskuan jar dezakeenik; gelditzen den bakarra da eginikoak formalizatzea.

Zaila da kalkulatzeko, uztailean sanferminak izaten direnez, zer datatarako eman litekeen irekitzeko lizentzia, baina Ondare Zerbitzuak uste du uztail amaierarako emana egonen dela seguruenik.

Irekitzeko lizentzia eman aurretik erabilera administratiboko eraikinak okupatzea ohikoa izan da eta da, lizentzia horren izapideek luze jotzen baitute. Horrela jokatzeko arrazoi nagusiak dira eraikin bat hutsik izateak dakartzan kalteak, hala ekonomikoak nola zerbitzu publikoa emateari dagozkionak, eta okupazio-datari buruzko segurtasun eza. Iruñeko Udalak, behin eskaera eginda eta behar den dokumentazioa aurkeztuta, non zuzendaritza fakultatiboak sinatutako ziurtagirian jasota ageri baita instalazio guztiak proiektuarekin bat datozela eta funtzionamendu probak eginak daudela, eraikina okupa zedin utzi zuen, harik eta bere zerbitzu administratiboek lizentziaren izapideekin amaitzen zuten bitartean.

2.- Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana da dokumentu bat, behar bezala baimendutakoa, ezartzen eta formalizatzen duena zein den enpresa baten prebentzio-politika, biltzen dituena arauak, erregelamenduak eta prozedura eragileak, eta zehazten dituena zeintzuk diren prebentzioaren helburuak eta enpresako maila hierarkiako ardurak nahiz eginkizunak, laneko arriskuei dago-kienez.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren azaroren 28ko 2958/2005 Ebazpenaren bidez onetsitako behin betiko testuan jaso ziren laneko arriskuen prebentzioaren gaineko politika orokorra,

printzipio eta helburu oinarriko edo orokorrak eta antolamendu-modalitate eta egitura (organigrama, eginkizunak eta ardurak). Testu hori, hain zuzen ere, Foru Komunitateko Administrazioaren gainerako zatiaren eta Administrazioaren erakunde autonomoen Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren parte gisa onetsi zen. Testu hori Administrazio Errokoak diren lantoki guztietan aplikatzeko da, baita galderako lantoki horretan ere, hau da, Iruñeko González Tablas kaleko horretan ere.

Aldez aurretik, dokumentu horri buruzko kontsulta egin zitaion Foru Komunitateko Administrazioiko gainerako zatiaren Segurtasun eta Osasun Batzordeari, eta, hala, batzorde horrek dokumentuan parte hartu zuen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 39. artikuluan ezarritako exijentziak betetze aldera. Batzorde horrek, 2005eko urriaren 27an eginiko ohiko bilkuran, aldeko txostena eman zuen, onetsi egin baitzen bilkurara joandako bi ordezkarietako bakoitzaren botoen gehiengoarekin; hau da, Foru

Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordezkarien gehiengoarekin, eta bilkurara joandako prebentzioko 14 ordezkarien gehiengoarekin (aldeko botoa eman zuten CCOO, UGT eta CSI-CSIF erakunde sindikaletako prebentzioko 7 ordezkariak, eta abstenitu egin ziren LAB, ELA, AFAPNA eta ASIT-SPF erakunde sindikaletako 7 ordezkariak).

3.- Eraikin berriari 431 langilek emanen dute zerbitzu, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko ataletan hain zuzen. Hona zehaztapenak: funtzionarioak, 275; langile kontratatuak, 60; enpresa publikoetako langileak, 96.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2010eko uztailaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua orain dagoen lekutik Alondegikaleko lehengo kokalekura eramateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua orain dagoen lekutik Alondegikaleko lehengo kokalekura eramateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du (7-10/PES 00557) Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua orain dagoen lekutik Alondegikaleko lehengo kokalekura eramateari buruz. Hona horri buruzko informazioa:

Hauk dira eginiko galderak:

1. Zein da aipatu departamentuko zerbitzuen lekualdatzearen egoera? Noiz egingen da?

2. Egin al dira zerbitzuak eramanez diren lokal berria egokitzeko lanak? Noiz egin dira eta zenbateko kostua izan dute?

3. Zenbat langile publiko eramanez diren lokal berrira? Zer lanpostu dira?

4. Foru Komunitateko Administrazioaren mendean Armada etorbideko lokaletan ari diren enpresa publikoek edo erakunde autonomoek kontratatutako langileetatik, zenbatek joan beharko dute lokal berrietara? Zer lanpostu dira?

Hona eginiko galderen erantzunak.

1. Zein da aipatu departamentuko zerbitzuen lekualdatzearen egoera? Noiz egingen da?

Uztaileko bigarren hamabostaldian egingen da lekualdatzea; uztailaren 22an hasiko da, hain zuzen ere.

2. Egin al dira zerbitzuak eramanen diren lokal berria egokitzeko lanak? Noiz egin dira eta zenbateko kostua izan dute?

Ekaineko bigarren hamabostaldian eta uztaileko lehenbizikoan lokalak egokitzeko obrak eginen dira. Obrak 125.808,17 euroan (BEZa barne) adjudikatu dira. Horietatik, 98.086,16 euro Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio, eta 28.722,01 euro Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusiari.

3. 3.- Zenbat langile publiko eramanen dira lokal berrira? Zer lanpostu dira?

Lokal berrira Departamentuko langile guztiak (70 pertsona) joanen dira, eta bekadun bat ere bai.

4. 4.- Foru Komunitateko Administrazioaren mende Armada etorbideko lokaletan ari diren enpresa publikoek edo erakunde autonomoek kontratatutako langileetatik, zenbatek joan beharko dute lokal berrietara? Zer lanpostu dira?

Sozietate publikoetako lau langile joanen dira lokal berrietara (bi arkitekto eta bi biologo), eta CAUko pertsona bat.

Iruñean, 2010eko uztailearen 1ean

Ondare Zerbitzuko zuzendaria: Javier Martínez Eslava

Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Ekonomia eta Ogasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailearen 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du,

PES-558, Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz. Hona hemen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak igorritako informazioa:

Iruñean, 2010eko uztailearen 2an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

7-10/PES-558 parlamentu-galderari erantzute aldera, honako dokumentazioa eransten dut:

1. Kontsultatutako enpresa publikoen laburpen taula bat, zehaztuta, kasuan-kasuan, bidezkoa ote den ala ez galderari erantzutea.

2. Dokumentu bat, non erantzutea bidezkoa duten sozietateen erantzunak biltzen baitira.

Besterik gabe, adeitasunez, agur.

Zuzendari nagusia: Jesús Pajares Azpiroz

7-10/PES-00558 PARLAMENTU-GALDERA

ENPRESA	EZ DA BIDEZKOA, EZ BAITAGO ENPRESA PUBLIKOEKIN LAN-HARREMANA DUEN LANGILERIK EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUAN	BAI	
		BIDEZKOA DA, BADAUDE-ETA ENPRESA PUBLIKOEKIN LAN-HARREMANA DUTEN LANGILEAK EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUAN	ERANSKINA
ANAIN		X	Honekin batera
ANL	X		
BALUARTE	X		
ICAN	X		
CNAI	X		
CTPSA	X		
VIVEROS	X		
GEDESA	X		
C.A.T.	X		
ITG AGRICOLA	X		
ITG GANADERO	X		
NAFINCO	X		
NGA	X		
NAMAINSA	X		
NASERSA	X		
NASUINSA	X		
NASURSA	X		
NILSA	X		
OPNATEL	X		
PLANETARIO	X		
RIEGOS DE NAVARRA	X		
RIEGOS DEL CANAL DE NAV.	X		
SODENA	X		
SPRIN	X		
VINSA	X		
CIRCUITO	X		
PIN	X		
CEIN	X		
START UP	X		
FONDO JOVENES EMP.	X		
TERRITORIO RONCALIA	X		
TRACASA		X	Honekin batera
MIYABI	X		
NAVELSA	X		
POTASAS	X		
SALDOSA	X		
SALINAS	X		
ECHAURI FORESTAL	X		

7-10/PES-00558 parlamentu-galdera

1.- Zenbat langilek daukate kokaleku fisikoa departamentuan, edozein motatako kontratu-harremana dutela ere, lanekoa edo ez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren mendeko enpresa publiko edo erakundeekin?

ANAIN. Anain enpresako plantillako pertsona bat dago kokaleku fisikoa Ekonomia eta Ogasun Departamentuan duena. Moderna Planean egiten du lan, eta kokalekua departamentu horretan izatearen helburua da lan guztien koordinazioa erraztea.

TRACASA. Tracasa enpresako plantillako pertsona bat dago kokaleku fisikoa Ekonomia eta Ogasun Departamentuan duena. Laguntza teknikoak zerbitzuak ematen ditu, astean 17,50 ordu, hala ezarrita baitago Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Politika Ekonomikoaren eta Garapenaren zuzendari nagusiak abenduaren 30ean emandako 66/2006 Ebazpenean.

2.- Zer baliabide material jartzen dira langile horien eskura eta norenak dira erabiltzen dituzten baliabideak?

ANAIN. Ordenagailu eramangarri bat eta ANAINen telefono mugikor bat erabiltzen ditu.

TRACASA. Ekonomia eta Ogasun Departamentuarenak diren ordenagailu bat eta telefono bat erabiltzen ditu. Tracasak garatutako aplikazio informatiko bat jartzen da langile horren eskura.

3.- Herritarrak artatzen al dituzte zerbitzuren bat emateko? Hala bada, zer zerbitzu? Ez badute halakorik egiten, zer lan egiten dute eta noren menpe daude funtzional eta organikoki?

ANAIN. Ez du herritarrik artatzen. Bere lana da laguntza teknikoa ematea Moderna Plana garatzeko; plan hori ANAINen helburuen artean ageri da jasota.

TRACASA. Ez du herritarrik artatzen. Inkesta telefonikoak egiten dizkie enpresei, datu estatistikoak lortu eta Nafarroako enpresen direktorioa eguneratuta mantentzeko. Organikoki, gainera duena da Tracasako Lurralde Informazioko Sistemen Departamentuko kasuko proiektuburua.

Ikuspegi funtzional batetik, zer behar planteatzen dizkion Nafarroako Estatistika Institutuko Ekoizpen Estatistikoaren Atalak, horren arabera egiten du lan.

4.- Halako zenbat lanpostu daude eta zer presakuntza dute?

ANAIN. Bat. Zuzenbidean lizentziatua da eta finantza-zuzendaritzako masterra du.

TRACASA. Bat. Soziologiako lizentziatua.